



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 18a

69. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, hedabide sozialetan baztertzailak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak argitaratzearen aurkako neurriak sustatzekoa. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak jar ditzan udalen eta gainerako toki entitateen eskura, dituzten ondasunen inbentarioa egiteko eta ondasun horiek dagokien jabetza-erregistroan inskribatzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezkirotz kaleko instalazio berrietako errotulazioa euskaraz ere paratu dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Fermin ikastolarekin DBHko laugarren lerroa itundu dezan 2010-2011 ikasturtetik aurrera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gripearen aurkako txertoen eresketa hitzar dezan Osasun eta Gizarte Politika Ministerioarekin, osasun publikoaren aurrekontuan aurrezte aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da indarrean dagoen Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat prestatu eta izapidetu dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010-2017 urteetarako Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala jendaurrean jartzeko epea alda dezan eta informazio- eta parte-hartze

publikorako plan bat aurkez dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 15 jaits ditzan, ekainaren 1etik aitzina, Gobernuaren eta izendapen askeko goi karguen ordainsariak. Mozioa erretiratzea (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zer dela-eta Nafarroako Museoaren etxaurrea eta barnealdea oraindik ez dagoen euskaraz errotulaturik, Paula Kasares Corrales andreak egin (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren egoitza berriaren kanpoko eta barneko errotulazioari buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egin (16. or.).
- Galdera, Foruzaingoak auto partikular eta ez-ofizialekin patruilatzeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (16. or.).
- Galdera, Lizarrako San Pedro de la Rúa elizaren zaharberritze-prozesuan aurreikusitako bisita-programari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (17. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den argitaratu 2010-2011 ikasturtean ikastetxe gehiagok haien jardura ordutegi jarraituan antolatzeke deialdia, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Erregeen omenaldia eta Vianako Printzea Nazioarteko sariak banatzeko ekitaldia antolatzeak ekarri dituen gastuei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Klimaren aldeko Ekintza Planaren egoerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (19. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 2010eko ekitaldian foru parlamentariak jasoko dituzten ordainsariak aldatzea. Ekainaren 1etik aurrera izanen du eragina (20. or.).
- 2010eko ekitaldirako Nafarroako Parlamentuko lehendakariak eta Parlamentuko behin-behineko langileek jasoko dituzten ordainsariak. Ekainaren 1etik aurrera izanen du eragina (21. or.).
- Lan-taldea, NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertzea. Barne-funtzionamendurako arauak (21. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, hedabide sozialetan baztertzaileak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak argitaratzearen aurkako neurriak sustatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak hedabide sozialetan baztertzaileak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak argitaratzearen aurkako neurriak sustatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Hedabide sozialetan baztertzaileak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak argitaratzearen aurkako neurriak sustatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, hedabide sozialetan baztertzaileak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak argitaratzearen aurkako neurriak sustatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna printzipio juridiko, etiko eta politikoa da, eta hala aitortu izan da estatuko, nazioarteko eta Europako giza eskubideei buruzko zenbait testutan.

Estatuko araudiaren oinarri gisa, aipagarriak dira Espainiako Konstituzioaren 14. eta 9.2 artikulua, zeinek aldarrikatzen baitituzte, hurrenez hurren, berdintasunerako eta sexua dela-eta baztertua ez izateko eskubidea eta botere publikoen betebeharra, beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko banakakoaren eta berau sartzen den taldearen berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezten. Bestalde, Emakumeen eta Gizonen Egi azko Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 28. 4 artikuluan hau ezartzen da: "Informazio- eta komunikabide teknologien esparruan, oso-osoa edo zati batean diru publikoarekin ordaindutako proiektuetan, bermatuko da hizkera eta edukia sexistak ez izatea"

Nazioartean, nabarmendu behar da Emakumearen aurkako Bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 1979an onetsia eta Espainiak 1983 berretsi zuena.

Europar Batasuneko araudiari dagokionez, Europar Batasunaren Itunaren 3.3 artikuluan ezartzen da Batasunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duela, eta berdintasunerako eskubidea aitortzen da, halaber, Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunaren

23. artikuluan. Artikulu horietan oinarrituta, izaera komunitarioa duen araudi zabala garatu da.

Hedabideek, haien eduki, programa edo informazioen bidez, sarritan erortzen dira sexuagatiko bereizkerian, eta bereizkeria horrek iraunarazten laguntzen dio egiturazkoagoa eta unibertsalagoa den gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunari. Bereizkeriaren errealitatea, emakumezkoen irudi estereotipatu, kaltegarri eta iraingarrien bidez, bereziki agerikoa da sexu-zerbitzuen publizitatea egiten duten hedabideetan, ikusirik horietan agertzen diren prostituten deskribapen fisikoak, haiek aurkezteko jartzen diren argazkiak, erabiltzen diren adjektiboak edo antzeko edukiak.

2007an, Kongresuak eta Senatuak eraturako Emakumeen Eskubideen eta Aukera Berdintasunaren Batzorde Mistoak txosten bat prestatu zuen prostituzioak estatuan zuen egoerari buruz, eta bertan esaten da “prostituzioak oso harreman estua duela emakumeen trafikoarekin eta salerosketarekin,” emakumeen eta neskatxen trafikoa eta salerosketa areagotzen ari dela Europako eremuan eta, oro har, mendebaldeko herrialdeetan, eta “emakumeen eta neskatxen trafikoa sexu-esplotaziorako eta prostituziorako mundu osoan zabaldua dagoen negozioa dela”. Halaber, txostenean esaten da prentsak dirusarrera handiak lortzen dituela prostituzioaren publizitatearen bidez, eta defendatzen du inolako tolerantziarik ez izatea prostituzioarekiko, gehienetan ez baita borondatez egiten eta lotura estua baitu baliabideak eskuratzeko aukera gutxien duten emakume eta neskatxen esplotazioarekin.

Horren aurrean, botere publikoek beren esku-menak baliatu eta esku hartzeko ardura dute. Hori dela eta, foru lege honen helburua da finantzaketa publikoarekin ez laguntzea hedabideei sexua dela eta baztertzailatzat jotzen diren jarduketak sustatzen, zehazki sexu-zerbitzuen publizitatea egiten dutenei, hori, arestian aipatu bezala, oinarrizko eskubideen urraketa baita.

1. artikulua. Nafarroako administrazio publikoek sustatuko dute hedabideetatik desagerraraztea baztertzailak eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren aurkakoak diren publizitate-edukiak, pertsonen duintasunaren aurkako irudi estereotipatua zabaltzen dutenak edota sexu-esplotazioa xede duen pertsonen salerosketa sustatzen laguntzen dutenak.

Zehazki, ulertuko da eduki hori dutela prostituzioa sustatzeko xedea duten iragarkiek.

2. artikulua. Aurreko artikuluan aurreikusitako xedea lortze aldera, kasu bakoitzean beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartuko dira.

Oro har, administrazio publikoek ezin izanen diete dirulaguntza publikorik ezta bestelako dirulaguntzarik eman 1. artikuluan aipatu publizitate edukiak argitaratzen dituzten hedabideei.

Halaber, Nafarroako administrazio publikoek ezin izanen dituzte publizitate- edo komunikazio-kanpaina instituzionalak argitaratzea helburu duten kontratuak sinatu aipatu hedabideekin.

Xedapen gehigarri bakarra.

Foru lege honen aplikazio esparrutik kanpo geratuko dira legearen edo erregelamenduen aginduz berariaz argitaratu edo zabaldu behar diren arauzko xedapenak, egintza administratibok eta ebazpen judizial guztiak, bai eta jarduera publikoei buruzko gainerako informazioa ere.

Xedapen iragankor bakarra.

Foru lege honetan xedaturikoak ez du eraginik izanen legea indarrean sartzekoan hedabideei dagozkien dirulaguntza publikoetan edo laguntza ekonomikoetan. Laguntza horiek esleitu ziren baldintza beretan jasotzen jarraituko dute, amaitu edo agortu arte.

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea hein batean aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Comptos Ganberako txostenek behin eta berriro nabarmentzen dute dirulaguntzak subjektibotasunez ematen direla toki administrazio publikoen esparruan. Kasu batzuetan, ez dago horiek arautzen dituen ordenantzarik; beste batzuetan, berriz, ordenantza horiek egon arren ez dira betetzen. Hori guztia nabarmendu behar da dirulaguntzak ematen dituzten entitateak edo erakundeak mankomunitateak, enpresak, fundazio publikoak edo erakunde autonomoak direnean.

Ondasunen eta diru publikoaren arloan dagoen nahierara jokatzeko modu hori desagerrarazi egin behar da.

Ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzkoa, izan zen dirulaguntzen arloko

lehenbiziko araudia, eta gerora hobetu eta aldatu egin zen, azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen bidez.

Hala ere, lege horren aplikazio eremua Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzetara murrizten da, eta egiaztatu denez, hori ez da nahikoa eta ezinbestekoa da beste araudi berri bat ezartzea, funtsean egitura bera mantendu arren, sektore publiko osoari aplikatzekoa izanzen zaiona.

Halaber, proposatzen da 34.1 artikuluko b) letra kentzea; izan ere, hor aipatzen den kausa dirulaguntzak emateko deialdia egin duen entitateari soilik egotz dakioke, eta ez dirudi onargarria denik deuseztasuna oinarritzea inolaz ere dirulaguntzaren onuradunaren ardurapekoa ez den arrazoi batean.

Gaur egun indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudiak helburuzko izaera du; hau da, bete beharreko xede argi bat du eta onuradunak prestazio horri buruzko kontuak eman behar ditu. Horrenbestez, ezinezkoa da zorren konpentsazioa, horrek kontzeptuaren desnaturalizazioa eta egiazki Administrazioak bere buruari dirulaguntzak ematea ekarriko bailuke. Agerikoa denez, bidezkoa litzateke dirulaguntzak emateko deialdietan ezartzea, komenigarritasun edo baldintza gisa, onuradunek beteta izan ditzatela ogasun publikoerikiko dituzten betebeharrak, baldintza hori beste deialdi batzuetan ere ezartzen baita.

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Arau hau aplikatuko zaie Nafarroako aurrekontu publiko ororen kargura ematen diren dirulaguntzei.

Ondorio horietarako, aurrekontu publikotzat hartuko dira Nafarroako Aurrekontu Orokorrak, Nafarroako udalerrri eta kontzejuetako aurrekontuak, mankomunitateetako eta tokiko administrazio-batzordeetako aurrekontuak, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren nahiz udalerrien eta kontzejuen erakunde autonomo, enpresa publiko eta fundazio publikoetako aurrekontuak ere.

Dirulaguntzat hartuko da aurrekontu publikoetatik entitate publiko nahiz pribatuei eta pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko diru ekarpen edo transferentzia oro, betiere ez badira kontratuak edo enkarguak betetzeari buruzkoak edota juridi-

koki galdagarriak diren betebeharrak betetzeari buruzkoak.

2. artikulua. 34. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra kentzea.

3. artikulua. 36. artikulua kentzea.

Lehen xedapen iragankorra.

Foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren foru dekretuak eta gainerako xedapenak onetsi bitartean, haren aplikazioa indarrean dagoen foru araudiaren eta estatuko araudiaren arabera arautuko da.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe geratuko dira foru lege honen edukiarekin bat ez datozen arau guztiak eta, zehazki, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 1. artikulua.

Azken xedapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena eta enkargua ematen zaio, arau hau sei hilabeteko epean gara dezan.

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko irailaren 8ko eguerdiko hamabiak arte**

luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak jar ditzan udalen eta gainerako toki entitateen eskura, dituzten ondasunen inbentarioa egiteko eta ondasun horiek dagokien jabetza-erregistroan inskribatzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak jar ditzan udalen eta gainerako toki entitateen eskura, dituzten ondasunen inbentarioa egiteko eta ondasun horiek dagokien jabetza-erregistroan inskribatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horren eledun gisa eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Ondasunen inbentarioak egitea administrazio publiko guztien eta, zehazki, toki entitateen legezko betebeharra da.

Edonola ere, betebeharrak hori ez da askotan betetzen. Hala, Comptos Ganberak toki entitateen egoerari buruz eginiko txostenean adierazten denez, aurkeztutako laginen arabera, toki entitateetatik % 80k baino gehiagok ez du ondasunen inbentarioa behar bezala eguneratuta.

Gaur egun, egoeraren eta aipatu lege-haustearen larritasuna areagotu egin da, Toki Administrazioaren egungo egituraren edozein aldaketari ekiteko oztopo bilakatu baita.

Hala ere, 80ko eta 90eko hamarkadetakako katastro-eguneratzeak eta arlo horretan diharduten enpresek, hala nola Tracasak, ahalbidetzen dute gaur egun ondasun higiezinak, herri ondasunak edo toki entitateen berezko ondasun izanda ere, jada sailkatuta egotea. Bestalde, inbentarioaren zati handi baten eguneratzea errazagoa da egina dagoen lan horren ondorioz.

Bigarrenik, ulertzen da inbentarioan sartu beharreko gainerako ondasunak zenbait katalogotan eta, zalantzarik gabe, toki entitate bakoitzeko ondasun-zerrendetan jasota egonen direla.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak jar ditzan udalen eta gainerako toki entitateen eskura, dituzten ondasunen inbentarioa egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak jar ditzan udalen eta gainerako toki entitateen eskura, Nafarroako toki entitateen titulartasuneko-

ak diren ondasun higiezin guztiak, inbentarioan sartu ondoren, dagokien jabetza-erregistroan inskribatzeko, herri ondasun edo berezko ondasun gisa.

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an.

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezkirotz kaleko instalazio berrietako errotulazioa euskaraz ere paratu dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ezkirotz kaleko instalazio berrietako errotulazioa euskaraz ere paratu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatua izan dadin.

Zioak

Mozio honek Nafarroako Gobernuaren administrazio zenbait unitateren errotulazioa, hala kanpokoak nola barnekoak, euskaraz ere izatea du xede.

Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilari jaunak 2010eko maiatzaren 21 ean emandako informazioaren arabera, 2009ko ekainaren 29an Nafarroako Gobernuak gobernu erabaki baten bidez ondoko dokumentu hau onartu zuen: "Plan de Actuación de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus Organismos Autónomos en materia de Inmuebles-Oficinas Administrativas 2009-2011"

Dokumentu horretan, betiere Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilari jaunak emandako informazioaren arabera, Administrazioaren unitate batzuk Iruñeko Ezkirotz karrikako 20. zenbakiko etxabe edo lokalera aldatzea aurreikusten da. Aldatuko diren unitateak honako hauek dira: Zergadunari Laguntza eta Argibideak Emateko Zerbitzua, Pertsona Fisikoen Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergetarako Kanpainaren Zerbitzua, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzua.

Administrazio zerbitzu horiek Nafarroako Foru Komunitate osoari dagozkio eta egoitza berri batera aldatzekoak baitira, mozio honen bidez eskatu nahi da egoitza berri horretako errotulazioa, hala kanpokoak nola barnekoak, euskaraz ere egon dadila.

Errotulazio elebidun horren alde hainbat argudio eman daitezke:

18/1986 Foru Legeak, Euskarari buruzkoak ahalbidetu ez ezik, bere ezinbesteko helburuei (1.2. artikuluari) erreparatuta, Nafarroa osoari dagozkion administrazio zerbitzu horietako errotulazioa Nafarroako bi hizkuntzetan egotea guztiz egokia eta beharrezkoa da.

Aipatu lege hori garatzen duen 29/2003 Foru Dekretuan, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen horretan ere kontrako araurik ez dago. Honela dio 16.1 artikulua:

Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoen eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateen bulego, langela eta egoitzetako errotuluak, paperen idazpuru eta membreteak, zigilu ofizialak eta gainerako identifikazio nahiz seinalizazio elementuak gaztelaniaz idatzi beharko dira.

Nafarroako Arartekoak artikulua horren gainean egiten duen irakurketa kontuan hartuta, artikulua bermatzen duena da gaztelaniaz egonen dela (eta aipatu dugun errotulua gaztelaniaz egon badago)

eta deus ere ez du erraten bertze hizkuntza batean edo batzuetan ere egoteaz. Honela dio Arartekoak bere txostenean:

...nada dice en su redacción literal el artículo 16 del Decreto Foral sobre la prohibición de utilizar el vascuence, ya que únicamente dispone la obligatoriedad del uso del castellano (al margen de que se pueda utilizar además otra lengua siempre que se use el castellano), pero es que, además, no podría decirlo sin ser contrario a la propia Ley Foral que desarrolla, incurriendo en nulidad de pleno derecho, lo que nos llevaría a su no aplicación.

Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunaren jarraipena egiten duen Adituen Batzordeak 2008ko abenduaren 11n eman zuen bere bigarren txostena eta honela aipatu zuen Nafarroako eremu mistoko euskararen erabilera publikoaren inguruan: «El Comité de Expertos considera que pueden introducirse mejoras con respecto al empleo del vascuence en la esfera pública» (Aplicación de la Carta a España. Segundo Ciclo de Supervisión. ECRML [2008]5).

Nafarroako Arartekoak, Nafarroako Parlamentuak elebitasunari eta herritarren hizkuntza eskubideen egoerari buruz eskatutako txostenean, honela dio bere hirugarren iradokizun orokorrean: «Iradokitzen dugu ezen eremu mistoan diharduten

Nafarroako administrazio publikoen errotulazioa, seinaleak –barnekoak zein kanpokoak– eta papergauza guztiak elebitan egon daitezela» (44. or.). Euskarazko testuak gaztelaniazkoak duen tamaina bera izan dezala ere gomendatu du.

Bertzalde, ohartarazi behar dugu egoitzaz aldatzea aurreikusita dauden hiru zerbitzuetako batek, Nafarroako Aldizkari Ofizialari dagokiona, Nafarroako bi hizkuntzetan egiten duela lan eta, koherentzia osoz, bere instalazioak Nafarroako bi hizkuntzetan errotulatuta egon beharko lukeela.

Hori horrela, honako hau da mozioa:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Zergadunari Laguntza eta Argibideak Emateko Zerbitzuak, Pertsona Fisikoen Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergetarako Kanpainaren Zerbitzuak, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuak Iruñeko Ezkirotz karrikako 20. zenbakiko lokalean izanen duten instalazio berrietako errotulazioa, hala kanpokoak nola barnekoak, euskaraz ere para dezala, eta euskarazko errotulua gaztelaniazkoaren neurri berekoa izan dadila.

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta y Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Fermin ikastolarekin DBHko laugarren lerroa itundu dezan 2010-2011 ikasturtetik aurrera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita San Fermin ikastolarekin DBHko laugarren lerroa itundu dezan 2010-2011 ikasturtetik aurrera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean lehenbailehen eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

San Fermin ikastola da Nafarroan ikasle gehien dituen ikastetxe itundua, eta azken hamar urteotan bertako ikasle kopurua asko hazi da. Ikastetxeko Haur Hezkuntzako eskaintza –lau ikasgela, 100 ikasle gehienez– baino handiagoa da eskaera urtero; hori dela eta, urtero 100 ikasle izaten dira kurtso bakoitzean eta badira ikasposturik gabe geratzen diren familiak ere.

Haur eta Lehen Hezkuntzako lau ikasgelak beteta egoteak arazoak ekartzen ditu Bigarren Hezkuntzan; izan ere, ikastetxeak soilik hiru ikas-

gela ditu itunduta maila horretan, eta ikasgela bakoitzean 30 ikasle sartzen dira gehienez.

Ikusita ikasle kopuruaren bilakaera, agerikoa zirudien ikastetxeak Bigarren Hezkuntzako laugarren lerroa behar zuela, eta hala jakinarazi zioten ikastetxeko lehendakariak eta zuzendariak Hezkuntza kontseilariari 2009ko ekainean egin zuten bilera batean. Bilera hartan, zeinetan eskola-iturri arloko zuzendari nagusia ere egon baitzen, Hezkuntza kontseilariak arrazoia eman zion ikastetxeari; hala ere, kooperatibari eskatu zion laugarren lerroaren gastuak bere gain har zitzala 2009/2010 ikasturtean, eta hurrengo ikasturtetik aurrera lerro hori ituntzeko konpromisoa hartu zuen.

San Fermin ikastolak bere konpromisoa bete du; hala ere, Hezkuntza Departamentuak laugarren lerroa ukatu dio, ikastetxe horren tamainako ikastetxe guztiei eman bazaie ere. Kontuan hartuta hezkuntzaren kalitatea ez dela bateragarria 35 pertsonako ikasgelekin, eta konparazioko bidegabekeria izango litzatekeela ikastetxe horretako gurasoek laugarren lerroaren kostua beren gain hartzen jarraitzea, Nafarroako Gobernuak bere hitza bete eta San Fermin ikastolaren laugarren lerroa itundu beharko luke.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du San Fermin ikastolarekin DBHko laugarren lerroa itundu dezan 2010-2011 ikasturtetik aurrera, ikusirik ikasleen kopuruaren areagotzea dela-eta sortu den beharra, eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak San Fermin ikastolarekin hartutako konpromisoa betetze aldera.

Iruñean, 2010eko ekainaren 10ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gripearen aurkako txertoen erosketa hitzar dezan Osasun eta Gizarte Politika Ministerioarekin, osasun publikoaren aurrekontuan aurrezte aldera.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gripearen aurkako txertoen erosketa hitzar dezan Osasun eta Gizarte Politika Ministerioarekin, osasun publikoaren aurrekontuan aurrezte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gripearen aurkako txertoen erosketa hitzar dezan Osasun eta Gizarte Politika Ministerioarekin, osasun publikoaren aurrekontuan aurrezte aldera.

Zioen azalpena

Iragan martxoaren 18an, Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluak aho batez onetsi zuen Osasun Sistema Nazionalaren kalitatea, kohesioa, ekitatea eta iraungarritasuna indartzeko akordioa.

Akordio hori aurrerapauso nabarmena da Osasun Sistema Nazionalaren gaur egungo ereduak etorkizunean ere jarrai dezan gizarteak gehien estimatzen duen zerbitzuetako bat izaten eta

herritarren osasun-beharrizanei erantzun baliagarriak eskaintzen.

Nafarroako Osasun kontseilariak parte hartu du Osasun eta Gizarte Politikako ministro Trinidad Jiménezek sustaturiko akordio horren prestaketan, eta, hala, azken urteotako akordiorik garrantzitsuenetako bat lortu da gure osasun sistema publikoaren garapenerako.

Lurralde arteko Kontseiluak martxoaren 18an onetsitako neurrietako bat medikamentu eta osasun produktuen erosketa zentralizatua adosteko konpromisoari buruzkoa da. Hala, borondatezko ahaleginak egingen dira beste autonomia erkidegoekin batera eskalako ekonomiak eta aurrezkiak lortzeko; izan ere, egingen diren erosketen bolumenaren eraginez, erosketen ordainketen ardura izaten jarraituko duten autonomia erkidegoek prezio hobeak lortuko dituzte.

Horrekin lotuta, Ministro Kontseiluak onetsi du medikamentuak eta osasun produktuak erosteko zentral bat sortzea, erosketa bateratuak egin ahal izateko.

Espainiako Gobernuaren erabaki horren bidez, Osasun Sistema Nazionalak erosketen zentral bat izanen du, Osasun eta Gizarte Politika Ministerioaren ardurapekoa izanen dena, eta hori aurrerapauso nabarmena da efizientzia eta osasun sistema publikoaren osasun arloko gastua murriztea bilatu nahi badugu.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gripearen aurkako txertoen erosketa lehenbailehen egitea hitzar dezan Osasun eta Gizarte Politika Ministerioarekin, osasun publikoaren aurrekontuan kopuru nabarmena aurrezte aldera.

Iruñean, 2010eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da indarrean dagoen Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat prestatu eta izapidetu dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita indarrean dagoen Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat prestatu eta izapidetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da indarrean dagoen Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat prestatu eta izapidetu dezan, mantenimendu-gastuen iraungarritasuna ezinbestean barematu beharreko parametro gisa sartze aldera eraikuntza zibil guztietan.

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu duen ekimena administrazio publikoen eraginkortasuna eta efizientzia bultzatzeko xedea duen beste ekimen bat besterik ez da. Kasu honetan, neurri bat sustatu nahi da botere publikoak behartzeko eraginkortasun jarraituaren printzipioak kontuan har ditzaten beren eraikin berriek eraikitzerakoan. Hala, ekipamendu eta

eraikin publikoen eraikuntzan baliabide publikoak optimizatzeko beharra ezarriko da, bai eta horien ondorengo mantentzean, administrazioan eta kudeaketan ere. Inbertsioaren zenbatekoa eta efizientzia bezain garrantzitsuak dira geroago eraikin horiek mantentzeko erabili beharreko kopuruak.

Eskaera hori argudiatzeko, egun bizi dugun krisialdiak sortutako beharrezkoak aipa daitezke. Hala eta guztiz ere, bere oinarria denboragabea da. Krisiarekin edo krisirik gabe, administrazio publikoek obra publikoetan egiten dituzten inbertsioak eta gastuak epe ertain eta luzeari begira egin behar dira. Egindako eraikinek zenbait parametro hartu behar dituzte kontuan ezinbestean: efizientzia energetikoa, erabileraren printzipio ergonomikoak, irisgarritasuna, mantenimendu erraza eta garbitasuna, ekipamendu soila eta erabilgarria, mota guztietako elementuak erraz ordezkatzeko aukera eta abar.

Eta helburu horiek lortzeko, ez da nahikoa administrazio publikoek beharrezkoak diren eta asmo eta premisa horien aplikagarritasuna bermatuko duten prestakuntza-aldaketak egitea, eta, zalantzarik gabe, horretarako biderik egokiena da kontratuen arloko araudia aldatzea eta gehikuntza nabarmenak sartzeko proiektu eta obrak barematzeari dagokionez.

Mozioa

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du indarrean dagoen Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat prestatu eta izapidetu dezan, mantenimendu-gastuen iraungarritasuna ezinbestean barematu beharreko parametro gisa sartze aldera kontratuei buruzko araudia aplikatzeko zaien zentro eta eraikin publikoen eraikuntza guztietan, eraikin horien mantentzea merkeagoa izan dadin gaur egungo ratioen aldean.

Iruñean, 2010eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010-2017 urteetarako Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala jendaurrean jartzeko epea alda dezan eta informazio- eta parte-hartze publikorako plan bat aurkez dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2010-2017 urteetarako Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala jendaurrean jartzeko epea alda dezan eta informazio- eta parte-hartze publikorako plan bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, 2010-2017 urteetarako Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala jendaurrean jartzeko epea alda dezan eta informazio- eta parte-hartze publikorako plan bat aurkez dezan.

Zioen azalpena

Aurreko Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integralak Nafarroako hondakinei buruzko plangintza ezartzen zuen 2004ra arte. Beraz, Nafarroako Gobernuak sei urte izan ditu hondakinei buruzko plana eguneratu eta prestatzeko. Plangintza berri hori prestatzerakoan, parte-hartze publikoak

garrantzitsua izan behar zuen, ez Foru Gobernuaren borondatez, baizik eta Europako eta Espainiako araudiek partaidetzan publikoaren beharra ezartzen dutelako halako planetan.

2010eko maiatzaren 17an hasierako onespena eman zitzaion 2010-2017 urteetarako Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integralari, eta haren ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanarekin batera, jendaurreko informazioaren epea ireki zen, 45 eguneko.

Gure ustez, Nafarroako Gobernuak ez ditu bete informazio- eta parte-hartze publikorako prozeduraren praktika egokiak, eta, hori dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jendaurrean jartzeko epea aldatu eta luzatu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 20 eguneko epean informazio- eta parte-hartze publikorako plan bat aurkez dezan, bat datorrena Hondakinei buruzko Zuzentarauan, Ingurumenarekin zerikusia duten zenbait plan eta programaren prestaketan parte-hartze publikoa arautzeko neurriei buruzko Zuzentarauan eta Europan eta Estatuan ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeari, parte-hartze publikoari eta justizia eskuratzeari buruzko araudi osoan ezarritakoarekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazioa zabaltzeko agiri bat presta dezan, hondakinei buruzko proposamen teknikoak laburbilduko dituen, informazio- eta parte-hartze publikoa errazte aldera.

Iruñean, 2010eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 15 jaits ditzan, ekainaren 1etik aitzina, Gobernuaren eta izendapen askeko goi karguen ordainsariak.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 15 jaits ditzan, ekainaren 1etik aitzina,

Gobernuaren eta izendapen askeko goi karguen ordainsariak". Mozio hori 2010eko maiatzaren 21eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer dela-eta Nafarroako Museoaren etxaurea eta barnealdea oraindik ez dagoen euskaraz errotulatu.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer dela-eta Nafarroako Museoaren etxaurea eta barnealdea oraindik ez dagoen euskaraz errotulatu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasares andreak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera hau egin nahi du Vianako Printzea Era-

kundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak dagokion batzordean ahoz erantzun diezaion:

2008ko ekainaren 27an, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak mozio bat onartu zuen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Museoko kanpoko nola barneko errotulazio osoa Nafarroako bi hizkuntzetan, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, jar zitzan.

Hori horrela, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

– Mozio hori onartu zenetik, ia urtebete joan dela, zer egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak aipatu mozio hori betetze aldera?

– Zer dela eta Nafarroako Museoaren etxaurea eta barnealdea oraindik ez dago euskaraz errotulatu?

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren egoitza berriaren kanpoko eta barneko errotulazioari buruzkoa.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren egoitza berriaren kanpoko eta barneko errotulazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasares andreak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera hau egin nahi du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak dagokion batzordean ahoz erantzun diezaion:

2008ko ekainaren 27an, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak mozio bat onartu zuen

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Liburutegi Nagusiaren egoitza berria egonen zen eraikinean kanpoko nola barneko errotulazio eta seinaleetika osoa Nafarroako bi hizkuntzetan, hau da, euskara eta gaztelaniaz, jar zitzan.

2010eko ekainaren lehenean, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo batzordeak bisita egin zuen Nafarroako Liburutegi Nagusiaren eta Filmotekaren eraikin berrira. Batzordekideak eraikinaren barnean ibili ziren eta, ikusi ahal izan zuten, larrialdietarako errotulazioa baino ez dago jarrita, baina jarritako barne errotulu guztiguztiak gaztelania hutsean daude. Parlamentari honek ez daki larrialdietako errotulazio hori behin-behinekoa ala behin betikoa denentz.

Hori horrela, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Paratutako larrialdietarako errotulazio hori behin-behinekoa ala behin betikoa da?

– Zer dela eta paratu da gaztelania hutsean?

– Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilari jaunak asmoa al du aipatu mozioa betetzeko?

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

Galdera, Foruzaingoak auto partikular eta ez-ofizialekin patruilatzeari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoak auto partikular eta ez-ofizialekin patruilatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarraren Osoko Bilkuran.

- Foruzaingoa auto partikular eta ez-ofizialekin ari da patruilatzen eta ohiko kontrolak egiten Nafarroako Errepideen Sarean. Zergatik?

Iruñean, 2010eko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Lizarrako San Pedro de la Rúa elizaren zaharberritze-prozesuan aurreikusitako bisita-programari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako San Pedro de la Rúa elizaren zaharberritze-prozesuan aurreikusitako bisita-programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Lizarrako San Pedro de la Rúa elizaren zaharberritze-prozesuan aurreikusitako bisita-programari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEk 2009ko urtarrilaren 27an sinatutako Nafarroako kultur ondareari buruzko hitzarmenaren 6. idatz-zatiak –“Zabalkundea eta bisita-programa”– hone-ladira:

“Esku-hartzeek, garrantzitsuak direnean, zabalkuntza-programa bat izan beharko dute, hori

en funtsezko osagai gisa (...) Esku-hartzeak dirauen bitartean, herritarrentzako bisita-programa bat jarriko da abian, ondasunaren interesak eta ezagutza ahalbideratzen badute. Arreta berezia eskainiko zaie ikasleei eta hirugarren adinekoei.”

Irizpide horren arabera, hitzarmenaren jarraipena egiteko batzordearen azken bileran, data bat ezarri zen, 2010eko udaberria, besteak beste klaustra eta haren alboko aretoak hartuko zituen bisita-programa abian jartzeko.

Bestalde, iragan ekainaren 1ean, hedabideek luze eta zabal jaso zuten Kultura eta Turismo kontseilariak elizara aldare nagusiaren azpian dagoen “mariskalen kriptaren” aurkikuntza ezagutarazteko egin zuen bisita. Hauxe esan zuen Kultura eta Turismo kontseilariak aurkikuntza horri buruz: “Kripta hori aurkitzea zen amesten genuena, eta poztokoa da Nafarroarentzat”

Aurrekoa ikusirik, hauexek jakin nahi dituzte:

– Nafarroako Gobernuak berresten al du PSN-PSOEekin sinatutako Nafarroako kultur ondareari buruzko hitzarmena indarrean dagoela?

– Zergatik ez da bete bisita gidatuen aurreikuspena San Pedro de la Rúa elizaren zaharberritze-prozesuan?

– Gobernuak egokitzat jotzen al du elizaren barrua eta berriki agerturiko mariskalen kripta hartuko dituen bisita-programa bat abian hartzea?

Iruñean, 2010eko ekainaren 10an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko zergatik ez den argitaratu 2010-2011 ikasturtean ikastetxe gehiagok haien jarduera ordutegi jarraituan antolatzeko deialdia.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den argitaratu 2010-2011 ikasturtean ikastetxe gehiagok haien jarduera ordutegi jarraituan antolatzeko deialdia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

• Zergatik ez da argitaratu 2010-2011 ikasturtean ikastetxe gehiagok haien jarduera ordutegi jarraituan antolatzeko deialdia?

Iruñean, 2010eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Nafarroako Erregeen omenaldia eta Vianako Printzea Nazioarteko sariak banatzeko ekitaldia antolatzeak ekarri dituen gastuei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Erregeen omenaldia eta Vianako Printzea Nazioarteko sariak banatzeko ekitaldia antolatzeak ekarri dituen gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zenbatekoak izan dira ondoko ekitaldi ofizialek eragin dituzten gastuak? Zer kontusaili egotziko zaizkie?

– Nafarroako Erregeen omenaldia (2010eko ekainaren 9a)

– Vianako Printzea Nazioarteko sariak banatzeko ekitaldia (2010eko ekainaren 9a)

Iruñean, 2010eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Klimaren aldeko Ekintza Planaren egoerari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Klimaren aldeko Ekintza Planaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zertan da Nafarroako Klimaren aldeko Ekintza Planaren prestaketa?

2. Nafarroako Gobernuak beteko al du legegintzaldi honetan Nafarroako Parlamentuko Klima aldaketa aztertzeke lan-taldeak aho batez onetsitako erabakia?

Iruñean, 2010eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2010eko ekitaldian foru parlamentariak jasoko dituzten ordainsariak aldatzea. Ekainaren 1etik aurrera izanen du eragina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuruak foru parlamentarien ordainsariak aldatzeari buruz eginiko txostena ikusirik, eta kontuan hartuz foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan ezarritakoa eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoa, hau ERABAKI DA:

1. Lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2010. urterako, 55.601,14 eurokoa izanen da, 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2. Lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2010. urterako, 49.422,10 eurokoa izanen da, 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin.

3. Lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2010. urterako, 41.700,82 eurokoa izanen da, 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin.

4. Lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari

gordina, 2010. urterako, 37.066,54 eurokoa izanen da, 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin.

5. Foru parlamentarien eta parlamentu-taldeen ordainsariak onestea, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez. Haien zenbatekoak hauek dira:

– Dietak: 136,16 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

– Dietak: 161,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

6. Aurreko ordainsarien kotizazio oinarriak bat etorriko dira 2010eko maiatzekoekin, salbu eta jasotzen diren ordainsariengatik handiago bat baldin badagokio. Kasu horretan, ordainsari handiago horren arabera egingen da hileroko kotizazioa.

7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

2010eko ekitaldirako Nafarroako Parlamentuko lehendakariak eta Parlamentuko behin-behineko langileek jasoko dituzten ordainsariak. Ekainaren 1etik aurrera izanen du eragina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuruak Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak aldatzeari buruz eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatutakoarekin bat, hau ERABAKI DA:

1. Lehendakariaren 2010. urteko ordainsari gordina 67.620,70 eurokoa izatea, 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2. Lehendakartzako Kabineteko buruaren 2010. urteko ordainsari gordina 50.633,38 eurokoa izatea, 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin.

3. Honako behin-behineko langileen ordainsari gordinak ezartzea, 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin:

- Lehendakartzako idazkaria: 34.342,42 euro.
- Mahaiko kideen idazkaria: 27.616,26 euro.
- Parlamentu-taldeen laguntzaileak: 27.616,26 euro.

4. Aurreko ordainsarien kotizazio oinarriak bat etorriko dira 2010eko maiatzekoekin, salbu eta jasotzen diren ordainsariengatik handiago bat baldin badagokio. Kasu horretan, ordainsari handiago horren arabera egingen da hileroko kotizazioa.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lan-taldea, NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertzea.

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen “NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertzeke lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak”, zeinak lan-taldeak berak onetsi baitzituen 2010eko ekainaren 14an eginiko bilkuran. Hona testua:

Lehena. Lan-taldearen xedea da NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuei eta planei buruzko txosten bat egitea.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio boto partikularrekin batera, aurkeztuko balira, eta hark Batzordeko kideei helaraziko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrena. Horra lan-taldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

Carmen María González García andrea (UPN)

Ordezkoa: Josefina Bozal Bozal andrea

Nekane Pérez Irazabal andrea (NaBai)

Ordezkoa: María Luisa Mangado Cortés andrea

María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SPN)

Ordezkoa: Román Felones Morrás jauna

José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)

Ordezkoa: Juan Cruz Alli Aranguren jauna.

Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB).

Ordezkoa: Ion Erro Armendáriz jauna.

Lan-taldeak María Victoria Arraiza Zorzano andrea hautatu du lehendakari, eta, kasua bada, lan-taldeko beste kide batek ordezkatu ahalko du hura. Lan-taldeari laguntzen dion legelaria izanen da lan-taldeko idazkaria, eta, kasua bada, haren ordezkari dena.

Laugarrena. Lan-taldeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, lan-taldeko kide bakoitzak bere parla-

mentu-taldeak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat kide dituen, horrenbeste boto edukiko ditu.

Bosgarrena. Lan-taldeak laguntza eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakartzaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezen eskatu ahalko du, bai eta beharrezkoak diren txostenak egin daitezen ere. Orobat eskatu ahalko du beste aditu batzuk ere etor daitezen.

Seigarrena. Lan-taldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

Zazpigarrena. Lan-taldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori bederatzi hilabeteko epean bukatu beharko du.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

